



Zizurkilgo herritarren %62k egiten du euskaraz

NEURKETA ▶ Euskararen ezagutza %63koa dela azaldu du Soziolinguistika Klusterrak

DATUAK ▶ Haurrak dira gehien hitz egiten dutenak eta adinekoak gutxien mintzatzen direnak ▶ 6



Torturaren aurkako ekitaldia antolatu dute etzi, Joxe Arregi gogoan

ZIZURKIL ▶ Atzo egin zuen aurkezpena Torturaren Aurkako Taldeak, Martxelo Otamendi, Aiert Larrarte, Nekane Txapartegi eta Maribi Arregi bertan zirela; hain zuzen ere, 26 urte betetzen dira hilaren 13an Joxe Arregi zizurkildarra hil arte torturatu zutela ▶ 4

ANOETA ▶

Dantza-sokaren azken entsegua egingo dute gaur Edurkan ▶ 4



Albitzuri Aundia harria. N. URBIZU

AMEZKETA ▶

Albitzuri Aundia Harri- jasotze Txapelketa, bihar

10 harri-jasotzaile bilduko dira frontoian, altxaera kopurua hartuko da aintzat ▶ 5

LEITZA ▶

Gaur 'Miss Sunshine Txikia' filma ikusgai

Emanaldia 22:30ean izanen da ▶ 7

JAVIER PRADINI ▶ EMAUS FUNDAZIOKO KIDEA

«Pertsona hauek eskatzen dutena entzunak izatea da»

Pierre abadearen lanaren jarraipena egiten dihardu tolosarrak ▶ 2

Zure berezko higiezin agentzia izan ezazu

Negozio antolatua

Giltza eskuan

TOLOSAN FRANKIZIA HARTU NAHI DUENA AUKERATZEN DUGU

INMO f3
RED inmobiliaria

Informa zaitetz
948 077010
franquicia.inmof3.com

JAVIER PRADINI ▶ GIPUZKOAKO TRAPEROS DE EMAUSEKO ZUZENDARIA

«Entzunak izatea da pertsona hauek eskatzen duten gauzetako bat»

Joan den hilabetean hil zen Pierre abadea, Emausen sortzailea; egun, lan horretan dihardu Javier Pradinik

ESTI EZEIZA

Urtarrilaren 21ean hil zen Pierre abadea, duela 50 urte Traperos de Emaus komunitatea sortu zuena. Era berean, Gipuzkoako Emauseko zuzendari den Javier Pradinik (Tolosa, 1958) Pierrerek 1954an hasitako lan horren jarraipena egiten dihardu duela 25 urtetatik.

Emaus komunitateak hainbat adar ditu baina zein da zehazki egiten duen lana?

Alde batetik fundazio bat dugu, eta hau formakuntza, lanaz, kooperazioaz eta ingurugiroarekiko sensibilizazioaz arduratzen da. Honekin batera, etxerik gabekoei lo egiteko toki ematen diegu. Esaterako, Donostiako egoitzan 24 pertsona ematen diegu laguntza. Egitasmo honek 12 hilabetetik hiru urtera bitarteko iraupena du, eta helburu nagusia, pertsona horiei autonomiaz bizitzeko erakustea da. Dena den, beste antzeko proiektu batzuk ere gauzatzen ditugu.

Beraz, lo egiteko tokia emateaz gain, gizarteratzen laguntzen diezute?

Hori da, lo eta jaten emateko zerbitzuaz gain, laguntza osagarri batzuk ematen zaizkie urteko 365 egunetan. Non per-

GIZARTERATZEA

«Oso erraza bada ere bazterketa egoera horretan erortzea, oso zaila da hortik ateratzea»

tsona hori gizarteratzen saiatzen garen, gero, autonomia osoz bizi ahal izateko.

Zein ezaugarri dituzte Emausera laguntza esko joaten direnek?

Bizi duten egoeraz gain, hau da, kalean bizitzearena eta lanik ez izatearena, asko eta asko, beraien herrialdetik alde egin eta hemen ezer ez duten etorkinak dira. Kasu askotan, ez dute dokumentaziorik lan egiteko, eta honek egoera horretara eramaten ditu. Bestetik, baldintza pertsonalengatik, drogengatik eta abar, arazo psikologikoak dituzten eta baztertuak izan diren pertsonak dira.

Duela 25 urte hasi zinen lanean Emaus komunitatean, hor-dutik hona asko aldatu al da zuen beharra duen jende hori?

Duela 25 urte, batik bat pertsona helduak etortzen ziren, 45 urtetik gorakoak eta industri berregituraketaren ondorioz kalean geratu zirenak. Bestalde, gehienek familiekiko haustura bat izaten zuten eta alkoholaren munduan hondoratuta amaitu zuten. Hala, batetik bes-



HITZA

terta ibiltzen ziren, lan aukera baten bila. Baina hau denborarekin aldatzen joan zen, eta drogekin arazoak zituzten pertsona gehiago izaten hasi ziren, baita legearekin arazoak zituztenak ere. Eta azken garaian, pertsona gazteagoak etortzen hasi ziren, ikasketekin-eta arazoak izan zituztenak. Horregatik, azken belaualdi hau ikustean, pentsatu genuen, ideia ona izan zitekeela gizarteratze eta formakuntzarako programak sortzea.

Askok lortzen al dute egoera horretatik atera eta berriro lan bat bilatzea?

Oso erraza bada ere bazterte egoera horretan erortzea, oso zaila da ateratzea.

Emausera laguntza bila joaten direnek, zein da duten beharrik handiena?

Kanpotik ikusten ditugun ez gain, esaterako, lotarako tokirik ez izatearena. Ia denek duten ezaugarrietako bat bakar-dadearena da. Familia eta ingurukoekin erlazioa galduta

dute gehienek, eta behar duten gauza nagusietako bat entzuna izatea da.

Euskal Herrian dituzuen egoitzetara joaten direnak bertakoak al dira?

Hori ere aldatu da, hemengoek gain, atzerritarren presentzia gero eta handiagoa da.

Euskal herrian jendeak uste baino txiki gehiago daudela uste al duzu?

Gizartea aurreratuz doa, eta gero eta erosotasun handiagoz bizi gara. Baina aldi berean gero eta nabarmenago geratzen da herritarren zati bat ez dela baldintza berdinetan bizi. Hala, datuei dagokionean, kopurua kezkatzeko modukoa ez bada ere, dutenen eta ez dutenen arteko diferentzia handituz doa, eta hori murrizten saiatu beharra daukagu.

Zein da 25 urte hauetan ikasi duzun gauza garrantzitsuenak?

Edonork harritu zaitzakeela. Eta batez ere, ditugun estereotipoek gain, hau da, alkoholarekin arazoak dituztela, imigrentek direla... Hau guztiaren gainera pertsonak direla, beraien maitasuna transmititu diezazuketela, eta aurrera ateratzeko gogoia dutela. Eta aldi berean, instituzio eta administrazioarengandik jasotzen duzun hotsasuna.

Zergatik erabaki zenuen duela 25 urte Emauseko kide izan behar zenuela?

Konpromiso pertsonal baten-

gatik, eta garai hartako gizarteak eskaintzen zigun bizimoduak ez genuelako nahi sartu ginen Emaus komunitatean. Beste modu batera bizitzeko gogoia genuen. Hala hasieran, komunitate batean bizi ginen eta dena elkarbanatzen genuen. Hau, Emauseko gainontzeko elkarrekin bizimodu bera zen. Hemendik abiatuta, denborarekin moldatuz joan behar izan dugu.

Gipuzkoarrek laguntzen al dute proiektuan? Solidarioak al dira?

Jendearen erantzuna hasieratik oso ona izan da. Askoz ere zailagoa izan da administrazioa konbentzitzea. Modu horretan, gure arrakastaren arrazoiak bat, jendearen laguntza da.

Nahi izanez gero, nola lagun dezake Tolosako batek?

Modu asko daude: alde batetik, pertsona batek, etxean duen zerbituetaz gabetu nahi badu 902 455855 telefonora deituta egin dezake, gu honen bila joango ginatkeelarik. Bestetik, Tolosan bertan dugun dendara joan eta hango produktuak erosita egin dezake. Eta azkenik, borondatezko lanak egin ez gure egoitzan.

Duela gutxi Emausko proiektu berri bat aurkeztu duzue.

Zentru handi bat da, non erabiltako produktuek biltzen ditugun, berregituratu eta ondoren berriro saltzeko.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak. Gurea zinemaren betaurreko batzuk agertu dira. Ikastolako idazkaritzan daude. Telefonoa: 943 69 23 21.

ALOKAIRUA

Etxebizitza. Lekunberrian 60m²ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldea eta bi logela. Ondersatuek deitu 679 20 14 60.

Etxebizitza. Tolosan konpartitzeko pisu bila nabil. Interesatuak deitu 630 46 31 73 telefonora.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Iritzia eman. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratzen den albiste bakoitzaren inguruko iritzia emateko aukera duzu gure webgunean. Beraz, sartu eta idatzi pentsatzen duzuna.

ZUZENKETA ▶

Herenegun, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN Joseba Ormazabal egindako elkarrizketan akats bat zegoen. Izan ere Euskadiko mendiko eskiko txapelketa irabazi du eta ez iraupen eskikoa.

GUTUN@K ▶

Gipuzkoak gutxi eta gaizki inbertitzen du Tolosan

Foru Aldundiak Tolosan egin-gutxi dituen gastuen berri eman du HITZAK, joan den astean. Horren aurrean, AuBk aditzera eman nahi du Diputazioak ez dituela behar adina finantzatzeko Gipuzkoako udalerrriak. Aldundia zerbitzu asko uzten ari baita udalen bizkar finantzatu gabe. Udalek gero eta zerbitzu gehiago eskaini behar dituzte, baina Diputazioak ez die udalei zerbitzu horiek egiten duten dirua ematen. Eta horrek, sasi-irtenbide gisa, zerbitzuak pribatizatzea dakar. Gerontologikoarena da horren adibide argia Tolosan.

Egoera hori konpontzeko AuBk proposamen zehatza egin du. Gipuzkoako herri guztiei, 168.000 euroko gutxieneko sarrera ziurtatzea; eskual-

deburuei osagarri bat ematea eta hiriburutasunaren osagarria kentzea; eta hori bete ondoren, herri bakoitzaren biztanleen arabera banatzea, gipuzkoar bakoitzeko egokitzen dena. Formula horrekin bai Tolosak eta, bai Gipuzkoako gainerako udalerriek ere, behar adineko finantzamendua izango lukete. Horrez gain, arloz-arloko inbertsio zehatzak leudeke.

Zergatik du Diputazioak Udalak finantzatzeko diru gutxi? Hiru motibo: Bat, Gipuzkoako Ogasunak behar hainbat diru ez biltzea da. Zerga presioa Europako 25 estatuen batez bestekoa baino 9 puntu gutxiago da eta iruzur fiskala oso handia. Bi, 2007an, kupo bidez, Espainiako estatuari 516 milioi euro emango zaizkio, Gipuzkoako udal guztiei ordainduko zaiena baino 203 milioi gehiago. Hiru, aurrekontuak errepede eta obra erraldoietan xahutzen dira, gutxi batzuek negozio handiak egin ditzaten:

erraustegiak, AHT, Pasaiaiko kanpo kaia...

Eta gelditzen zaion diru gutxi hori, Diputazioak udalen artean gaizki banatzen du. Arrazoia *Gipuzkoa Hiria*ren planteamenduan datza. Badirudi EAJ-EAko Gobernuak hiri bakarra sortzea nahi duela Gipuzkoan; Donostialdea erraldoi egitea eta gainerako herriak desagertzea. *Gipuzkoa Hiria* eredu horrek lurralde antolaketan desorekatua, herri txikiak desagertzea, dislokazio demografikoak eta zerbitzuen kontzentrazioa dakartza. Eredu horrekin Gipuzkoako herrien garapen orekatu eta iraunkorra bultzatzea ezinezkoa da.

Bestalde, Gipuzkoako aurrekontuak neoliberalak dira, izatera sozial eskasekoak. Gipuzkoaren aberastasun-banaketa diskriminatzailea eta Espainiaren menpeko Gipuzkoa eralduna eragiten dute. Negozioak hartzen dituzte kontuan, baina pertsonen beharrianak ez.

AuBk pobrezia Gipuzkoatik baztertzeko, hilabeteetan, 804 euroko Oinarrizko Errenta ezartzea proposatu du, diru kopuru hori baino gutxiagorekin inor bizi ez dadin Tolosan eta Gipuzkoan.

Gutun honetan aipatzen diren proposamenak Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu ditu AuBk. Baina EAJ-EA koalizioak, *apartheid*-aren gehiengo osoa erabiliz, artxibatu egin ditu aintzat hartu gabe ere. AuBk moziarik aurkezteko «zilegitasunik ez duela» adierazi. Horrela, 65.000 gipuzkoarren borondate demokratikoa Gipuzkoako erakundeetatik kanpora bota dute eta 65.000 gipuzkoar horien ordezkaritzak egin dituen proposamenak baztertu dituzte. Jarrera horrek ekarri du, batetik, gure erakundeek Europako defizit demokratikorik handiena dutenak izatea eta, bestetik, Tolosan gutxi eta gaizki inbertitzea ere.

INAZIO AGIRRE ARREGI (AUB) ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶

‘Maria Antonieta’ eta ‘Gure sagutxo hori’ ikusgai

Maria Antonieta filma izango da bihar ikusgai, 19:30ean eta 22:30ean Leidor aretoan. Etzi, berriz, 19:30ean ikusteko aukera izango da, eta astelehenean, 20:30ean. Bestalde, gaztetxoenei zuzenduta, etzi *Gure sagutxo hori* filma izango da 17:00etan.

TOLOSA ▶

Inauteri kontzertua, etzi, Berdura plazan

Urteroko Inauteri kontzertua eskainiko dute etzi, Berdura plazan 12:15ean hasita Udaltxistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak. Aurtengo berrikuntza izango da Musika Bandako kide ohiak ere ariko direla gaur egungo kideekin batera. Honela, urtean zehar egindako lana eskertu eta errekonozitu nahi diete Musika Bandakoek.

KALDEREROAK ▶

Inauterien aurretik, ijitoz jantzita eta zartariak eskuan

Anoeta, Iruran, Ibarran eta Zizurkilen gaur arratsaldean irtengo dira kalejiran; Tolosan, berriz, egun osoan zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte biharko

IÑIGO TERRADILLOS

Inauteriak gertu direla iragartzeko festa izan ohi dira Kaldereroak, beraz, astebete baino ez da geratzen mozorrotzen hasteko, gaur eta bihar zartari doinuak eta ijito arropak izango baitira nagusi. Tolosaldean hainbat herritan ospatzen dute egun hau, eta ondorengo egitaraua prestatu dute aurten:

Anoeta eta Irura. Urtero ibilbidea aldatzen dute, eta aurtengoa, Loatzo musika eskolakoak Iruratik Anoetara joango dira Kaldereroen doinuak zabalduaz. Hala, 18:00etan gertatu dira gaur, Irurako plazan eta herritarrek deitzen dituzte berarekin batera kalejira egitera.

Ibarra. Entsegu ugari egin dituzte azken egunetan gaurko kalejira behar bezala atera dadin. Loatzo musika eskolakoekin batera, herriko plaza-tik abiatuko dira herritarrek 18:00etan, ijitoz jantzita eta zartariak eskuetan.



laz Anoetatik Irurara egin zuten ibilbidea Loatzo musika eskolakoekin batera herritarrek. N. URBIZU

Tolosa. Beste herrietan ez bezala, Tolosan bihar izango da Kaldereroen doinuak entzuteko aukera. Hala, egitarau zabal antolatu dute goizean hasi eta gauerarte: 10:30ean erraldoiak eta buruhandiak kalejiran irtengo dira plaza Zaharretik; 15:00etan, haurren Txantxo Lehiaketa egingo dute Zentro Sozio-Kulturalarean; 16:00etan, Aiz-Orratz elkarteak txaranga

irtengo da elkartetik bertatik; 16:30ean, haur jaialdia izango da Aiz-Orratz elkarteak antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdi honetan, Txantxo Lehiaketako irabazleen zerrendaren berri emango dute; 19:30ean Kaldereroen Konpartsa aterako da Triangulotik; eta egitarauarekin amaitzeko, 23:30ean Incansables txaranga ibiliko da kalez kale.

Zizurkil. Inauterietan hasiera emango dien Kaldereroen Konpartsa Pedro Mari Otaño eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek osatuko dute. Gaur arratsaldean egingo dute irtetza, 15:15ean, hain zuzen ere. Eskolatik irtengo dira, eta kalez kale ibiliko dira herriagiro-tuz. 16:15ean Joxe Arregi Plaza-ira iritsiko dira eta askaria egingo dute.

TELEFONOAK ▶

- Larrialdiak. ((112))**
Osasuna.
 ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 ▶ Ibarra. Osasun etxea: 672411
 ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 ▶ Orendain. Medikua: 655595
 ▶ Oresa. Medikua: 682228
 ▶ Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 006800
 ▶ Gernikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637
 ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ DYA: 672536
 ▶ Gurutze Gorria: 674888
 ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
Garraioak.
 ▶ Renfe: 902 24 02 02
 ▶ Donostiako autobusa: 361740
 ▶ Tolosaldea bus: 650621
 ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 ▶ Taxia: 670420
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
Besterik.
 ▶ Ertzaintza: 538820
 ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 ▶ Tolargi: 650016
 ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

Joxe Arregi gogoan, torturaren aurkako ekitaldia etzirako

Torturaren Aurkako Taldeak antolatu du; zizurkildarra hil arte torturatu zutela 26 urte betetzen dira hilaren 13an

IMANOL GARCIA

Torturaren Aurkako Taldeak antolatuta, hil arte torturatu zuten Joxe Arregi zizurkildarra gogoan, ekitaldia egingo dute etzi, omenduaren izen bereko plazan, 13:00etan. 26 urte bete ko dira hilaren 13an Arregi hil zutela. TATEko kide Martxelo Otamendi tolosarrak azaldu duenez, «Arregi torturaren aurkako ikono bat da. Hori gogoratu eta salatzeke egingo dugu ekitaldia». Hain justu, otsailaren 13a da Euskal Herriaren Torturaren Aurkako Eguna.

Otamendiz gain, Nekane Txapartegi asteasuarra eta Aiert Larrarte TATEko kideak eta Maribi Arregi Joxe Arregiren arreba izan ziren prentsaurrekoan. Etziko ekitaldian, TATEko kideek egin berri duten bilera nazionalan ateratako ondorioen berri emango dute. Manifestazioa antolatzeke asmoa ere azaldu dute.

Ekitaldi horien aurretik, mendi martxa bat antolatu da, 09:00etan abiatuta, Iturriotzen dagoen Joxe Arregiren oroigarri-raino. Han, lagunarteko ekitaldia egingo dute, lore eskaintzarekin eta bertsolari baten parte hartzearekin. Ekitaldi guztiak amaituta bazkaria egiteko asmoa azaldu dute antolatzaileek.

Bestalde, hilaren 13an elkarretaratzeak antolatzeke asmoa erakutsi zuten TATEko kideek, Euskal Herriko hainbat herritan. Oraindik zehaztu gabe daude eskualdean egin-



Otamendi, Larrarte, Txapartegi eta Arregi, atzo, prentsaurrekoan. i.g.

Orain 26 urteko gertaerak

Erredakzioa ▶ 1981eko otsailaren 4ean atxilotu zuen Espainiako Polizia Nazionalak Joxe Arregi. Hamar egunetan torturatu ondoren, otsailaren 13an hil zen. Egun horietan barra batetik zintzilak izan zuten kolpatzen zuten bitartean eta oinak ere erre zizkieten. Epilepsi krisiak izan zituen. Poliziaren arabera heriotz naturala izan zuen.

go direnak. Egun horretan ere Joxe Arregiri lore eskaintza egingo diote hilerrian, 19:30ak inguruan.

Tortura kasu berriak

Atzo prentsaurrekoan TATEko kideek Iker Agirre bilbotarrak «jasandako torturak» salatu zituzten. Urtarrilaren 25ean Katalunian atxilotu ondoren, in-

otsailaren 15ean Madriletik Zizurkilera eramán zuten Arregiren gorpua. Hurrengo eguneko goizean herriko plazan izan zuten gorpua. Arregi ehorzten zuten bitartean, Euskal Herri guztian protestaldiak burutu zituzten. Talde politiko, sindikatu eta herri erakundeek deitutako greba orokorrak jarraipen handia izan zuen. ◀

komunikazio egoeran izan zuten bost egunetan. Nekane Txapartegik azaldu zuenez, «Garzonek atxilotuentzako proposatutako neurriak ez ziren bete». Aurpegiak «zuritze-ko» neurriak direla gaineratu zuen asteasuarrak eta benetako neurriak «salbuespenezko» egoerarik ez izatea eta Auzitegi Nazionala ixtea» direla esan zuen.

ANOETA ▶ KULTURA

Dantza-soka eguna egingo dute bihar

Gaur azkeneko entsegu orokorra egingo dute dantzariak, 18:00etan, Edurkan

ERREDAKZIOA

Anoetako dantza-sokaren eguna izango da bihar. Horren aurretik, gaur azken entsegua egingo dute, 18:00etan, Edurkan. Biharkoari dagokionez, 08:45ean dantzari guztiak bilduko dira plazan. Bi taldetan banatu eta baserrietara abiatuko dira. 12:00ak bitartean baserriaz baserri ariko dira, bakoitzean axeri-dantza (dantza-sokaren zatietako bat) eta fandango eta arin-arinak egingo dira. 13:00etan mutilek egingo dute dantza-soka plazan. 14:00etan Kuku elkartearen bazkalduko dute. Urte urte, bospasei pertsona aritzen dira bazkaria jartzen eta elkartearen laguntzen, dantzariak bapo bazkaldu ahal izateko. 17:00etan neskek egingo dute dantza-soka plazan.

Nesken dantza-sokaren ondoren, erromeria egingo dute frontoian. Anoetako Gazte Asanbladak antolatu du erromeria, eta musika, taloak, edariak... izango dira. Taloak egingo dira azkeneko urteetan talde txiki bat biltzen da, eta hantxe aritzen dira iluntze

osoan. «Azkeneko urteetan primerako giroa izan da arratsalde partean», azaldu dute antolatzaileek.

Dantza-soka martxan jartzeko ardura izan dutenek nabarmentzen dutenez, «dantza-sokan beste edozein ekimenetan baino jende gehiago biltzen da, bai dantzan bai antolakuntzan ere. Hortxe bere garrantzia». Antolaketa lanetan Anoetarrok Auzolanean plataformako kultura taldekoak aritzen dira eta hauek diotenez, «Kuku elkartearen, talogileen, txistularien eta AGAren laguntzarik gabe egingo litzateke eguna horren egoki prestatu».

Korrikaren mahaia

Dantza-sokaren egunaren baitan Korrika 15eko materiala jarriko dute salgai. Tolosaldean jartzen den lehenengo postua. Bertan, arropa erosteko, Korrika lagun egiteko eta emakumeen aldeko manifestua sinatzeko aukera izango da. Mahaia erromeri garaian jarriko dute, 17:00etatik aurrera.

ASTEASU ▶

Herri batzarrera deitu du ezker abertzaleak

Egungo egoera politikoari buruzko herri batzarra egingo dute gaur, 19:30ean Asteasuko Kultur Etxean, herriko ezker abertzaleak deituta. Antolatzaileek herritar guztiei deia zabaltzen die bilera-azaltzeko.

VILLABONA ▶

EHNA egiteko aukera bihar Musika Eskolan

Hileroko bigarren larunbatean egin ohi den bezala, bihar EHNA tramitatzeko aukera izango da Villabonan. 11:00etatik 13:00etara, Musika Eskolan (Kultur Etxea ohian) izango da horretarako aukera.

dantza
ikuskitzuna
LIZARTZAN

Otsailak 9, Ostirala
20:00etan

OTSOLAR dantza taldearen emanaldia

Lizartzako Aztinondo pilotalekuan

AMEZKETA ▶ HERRI KIROLAK

Bihar Albitzuri Aundia Harri-jasotze Txapelketa izango da

10 harri-jasotzaile bilduko dira pilotalekuan eta 10 minututan harriaren altxaera kopurua izango da kontuan



Bolumen handirik ez badu ere, 166 kilo ditu eta ez du heltzeko inongo lekurik. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Bihar Amezketa pilotalekuan Albitzuri Aundi Harri-jasotze Txapelketa izango da. Bertan Euskal Herriko harri-jasotzaileak ezagunenak izango dira Albitzuriko harria jasotzeko asmoz.

Amezketa Udalak antolatutako egun honetan, 166 kilo dituen Albitzuri harria 10 minututan ahalik eta altxaera gehien egitean datza proba: markarik onena 15 altxaera egitea izan da, Juan Jose Unanuek Goenatxo II.ak 1996. urtean lortu zuena, hain zuzen.

Biharko proban, harri-jasotzaileek hainbat arau bete beharko dituzte bi epaile aurrean dituztela: «Aurretik ez dute harria probatzerik izango, bakarrik harria jaso baino hiru minutu lehenago». Bestetik, «ezingo dute harria hautsarekin igurtzi: harria erreka da, irregularra, eta eusten zaila da». Harria etzanda jarri beharko dute jasoaldi bakoitzaren ondoren, eta bukatzeko, «txanda zozketa bidez aukeratu da».

TXAPELKETA ▶

Eguna. Bihar, hilak 10.
Proba. Albitzuri Aundi Harri-jasotze Txapelketa.
Ordua. 16:00etan.
Tokia. Pilotalekuan.
Prezioa. 10 euro.
Harri-jasotzaileak. Izeta II.a, Izeta III.a, Jokin Eizmendi, Goenatxo II.a, Elusukorta, Landarbide, Ostolaza II.a, Aimar Irigoien, Goikoetxea Iparraldekoa eta Urpe.
Aurkezleak. Iñaki Perurena sarrera modukoa egiten eta Joxe Anjel Sarasola esataria izango da.

Harri-jasotzaile hauen saioak ikusteko aukera izango da: Izeta II.a, Izeta III.a, Jokin Eizmendi, Goenatxo II.a, Elusu-

korta, Landarbide, Joseba Ostolaza II.a, Aimar Irigoien, Goikoetxea Iparraldekoa eta Urpe.

Harria, kalean

Sariak ere izango dira, eta «Tomas Ugartemendiak egindako garaikur berezia ere bai», Julian Sagastume alkateak eta Joexean Artola hirigintza zinegotziak argitu bezala.

Alkateak esan zuen moduan, «Amezketa kultura arloan gauza inportanteak baditu, bi dira: Fernando Amezketa eta Albitzuri Aundi harria. Udaletxean egon da, baina aurtan berriz aterako dugu, eta behin betiko utziko dugu kalean, oraindik erabaki ez dugun lekuren batean, baina jendeak ikus dezan». Beraz, azken altxaerak izango dira biharakoak.

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

Plaza-harria, Amezketa



1947an egindako jaialdian parte hartu zuten karga-jasotzaileak, J.M. Oterminen Amezketa liburutik aterata.

Ezagunak dira Euskal Herrian egin izan diren apustuak eta zama kontuekin lotutako lehiatan euskaldunak trebeak izan direna. Amezketa Albitzuri Aundia sasi-apustu hauei esker egin zen ezagun.

1875ean altxa omen zuen lehen aldiz Jose Mari Zurriarain amezketarrak, eta bizkar gainean jarri. Hartatik dator kio harriari jarritako izena, Albitzuri Aundia baserrikoa baitzen 42 urte zituen karga-jasotzailea. Loidi errekan zegoen harri hura etxera eramantzen zuten.

XX. mendeko erdialdera arte itxaron behar izan zen harri hori beste bizkar baten gainean berriz ikusteko: 1947an Errekartetxo azpeitiarrak, hasi eta 8. minutuan altxatzea lortu zuen. Hurrengo 1948an izango zen, Urtain boxeolariaren aitak 10 minututan lau jasotzaileekin. Baina 1951ean,

berriz ere Errekartetxo saiatu zen eta 5 aldiz jaso zuen.

1963an, baina, Donostiara eramantzen Albitzuri harria: 1976an ere bai, baina amezketarrak ez zeuden horrekin ados. 1977an beste txapelketa bat egin zuten Amezketa, eta Iñaki Perurena leitzarrak 13 aldiz jasotzea lortu zuen.

1990ean harri-jasotzaile asko elkartu ziren Amezketa plaza berritako eremura berritako asmoz: Goenatxo II.ak 15 jasotzaile egin zituen. Ordura arte, ez du beste inork gehiagotan altxatu.

Aimar Irigoien errezildarrak ere saiakera egin zuen 2002ko udan, plaza eta 16 urte besterik ez zituela; 5 minututan 4 aldiz jarri zuen harria bizkar gainean. Ez da makala... Aurtan eta azken aldiz plazaratuko den harria inoiz altxatu duten harri-jasotzaileak izango dira bihar. ◀



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Dokumentuak Etorbizunaren Memoria

The Atlas group/Walid Raad
Bleda y Rosa
Luc Delahaye
Juan Manuel Echavarría
Jacques Fournel
Sebastián Friedmann
Brian Mckee
Ann-Sofi Sidén
Alec Soth



Urtarrilaren 25etik martxoaren 24ra

Suite Erotique

J. A. Sistiaga



Urtarrilaren 31tik martxoaren 24ra



ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igandea eta jaiegunetan itxita
Bisita gidatuak taldeentzat. Tel.: 667 346 025

ZIZURKIL ▶ EUSKARA

MADDI SOROA

Tolosak, Villabonak eta Anoetak egin zuten bezala, Zizurkil ere herriko kaleetan euskaraz zenbat hitz egiten den neurtu du, Soziolinguistika Klusterraren bitartez. Emaitzak, herenegun aurkeztu zituen Larrait Garmendiak Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

Neurketaren arabera, Zizurkil %62k hitz egiten du euskaraz, eta herritarren euskararen ezagutza maila %63,3koa da. 2001arekin alderatuz, goranzko joera izan da nagusi, izan ere, 2001ean biztanlegoaren %65,7k hitz egiten zuen euskaraz eta ezagutza maila %62koa zen. Beraz, 2001az geroztik, herritar gehiagok erabiltzen du euskara eta ezagutza maila ere apur bat igo da.

2006. urteko urriaren 8an eta 11n egin ziren Zizurkilgo kaleetan euskara erabileraren neurketak, asteazkenean eta larunbatean, goiz eta arratsaldean. Aztertu ziren pertsonen artean haur eta gazteak dira nagusi, hala ere, ahalik eta laginik zabalena aztertzen saiatu dira.

Aipatu, neurketa honek kale erabileraren errealitatea aztertzen duela, hau da, erabileraren diagnostikoa egiten du, eta beraz, ez dira zergatiak aztertzen.

Zizurkil goia, euskaldunena

Neurketa auzoka eginez gero alde nabariak aurkitzen dira auzo batetik bestera. Hala, auzorik euskaldunena zizurkilgoia da, %88,4k hitz egiten duelarik euskaraz, 2001ean baino 8 puntu gehiago. Bigarren auzorik euskaldunena Aurrera ingurua litzateke %61,4k erabiltzen baitu euskara. 2001. urtearekin alderatuz, igoera nabaria izan da auzo honetan, %44,3k hitz egiten baitzuen orduan.

Neurketa egin den gainontzeko bi auzoetan, Bulandegi-Pagamuño eta Ubare inguruan, antzeko emaitzak jaso dira. Lehenengoan %55,1k

Herritarren %62k erabiltzen du euskara eta ezagutu %63k

Adinaren arabera, haurrak dira euskaraz gehien hitz egiten dutenak; adinekoak ordea, gutxien mintzatzen direnak



Larrait Garmendiak eskaini zituen Soziolinguistika Klusterrak buruturiko neurketaren datuak. M. SOROA

erabiltzen du, bigarren kasuan, berriz, %57,2k. 2001. urtearekin konparatuz, ordea, joera ezberdina eman da bi auzoetan. Bulandegi-Pagamuñoaren kasuan, 7 puntuko igoera eman da erabileran. Ubaren, ordea, 4 puntuko jaitziera izan du euskararen erabilerak 2001. urtetik hona.

Datu hauen aurrean, aurkezpenean izan zirenek eta Ainhua Larrea euskara teknikariak berak azaldu bezala, «Zizurkil goran 500 lagun inguru bizi da eta beheran 2.400, beraz, aztertu den lagina ezberdina da eta normala da Zizurkil goran euskaldun gehiago dagoela islatatzea datuetan». Horregatik, etorkizunean beste neurketarik egitekotan «lagin

ezberdinak aztertu» beharko liratekeela proposatu zuen Larreak.

Adinaren arabera datuak

Soziolinguistika Klusterrak egin ohi duen moduan, adinaren arabera datuak ere bildu zituzten Zizurkilgo kaleetan barna. Hala, adina haziz doan heinean euskararen erabilera gutxituz doa. Horregatik, haurrak dira euskararik gehien erabiltzen dutenak, %91, hain zuzen ere. Ondoren, gazteak leudeke %60ekin. Atzetik helduak datoz %58,6ekin, eta azkenik, euskararik gutxien erabiltzen dutenak adinekoak dira, %48,7koarekin.

2001eko datuekin alderatuz

gero, ez da aldaketa nabarmenik eman adinaren arabera neurketetan. Hala ere, joera nagusia, igoera da. Datu positiboa beraz, «gazteen euskara erabilera gorantz badoa, espe-ro dezakegu gazte horiek heldu bihurtzen direnean ere euskaraz hitz egingo dutela».

Haurren eragina

Gainontzeko herritan burutu dituen neurketetan bezala, euskararen erabilpena hazi egiten da haurrak aurrean daudenean. Datuei erreparatuz gero, %69,8a da haurrak aurrean daudenean euskaraz hitz egiten dutenen kopurua. Haurrik ez dagoenean, berriz, %56,3a da kopuru hori.

IBARRA ▶

Bigarren postua eskuratzeko aukera

Gernika jasoko du Lauburuk etxean; zaletuei deialdia egin die partidara joateko

ERREDAKZIOA

Konpromiso handia du bihar Lauburu areto futbol taldeak, sailkapen orokorreko bigarren postuan dagoen Gernikako taldea jasoko baitu 18:30ean Belabieta kiroldegian. Aurten mailaz igo bada ere, oso indartsu dagoen taldea da Gernika eta Ibarrek ez du lan erraza izango.

Partida zaila izango da, beraz, biharkoa. Gauzak horrela, norgehiako gilitza jokalariren esperientzia egongo da. Jokalariak gogo biziz kantxaratu beharko dute, Zilar eta Ohorezko Mailan jokatu duten futbolariak izango baitira elkarren artean lehian; besteak beste, Kantabriako Pefukasen jokatu duten Blanco eta Victor Ruiz, Bilboko G.S.I.n aritutako Aiert eta Mikel atezaina, edota Alberto Cabanas Castro-Urdialesetik etorritakoa.

Joaneko partidari Ibarrek 4-5ekoarekin garaitu zuen Gernikako taldea, bizkaitarrik, beraz, mendeku gosez etorriko dira. Gogorra eta borrokatua izango da norgehiagoka eta bi taldeen indarrak punta-punta ibiliko dira. Emoziorik ez da faltako azken unera arte, beraz.

Ibarrako jokalariei dagokionez, denak izango dira jokatze prest ez baitago zigorturik edo min hartutakorik. Puntuei dagokionez, Gernikaren aurka irabaziz gero, sailkapen orokorreko bigarren postua lortuko luke Ibarrek, baldin eta Burlatakoek partida galduko balute.

hilberria ▶

Jose Artola Mendiola

JAUNA

(Maria Dolores Arandiaren alarguna)

—Goian bego—

Hutsune handia
zuk utzi duzuna.Baina zure oroimenarekin
eta zure bizitzak
erakutsitako birtuteekin
saiatuko gara betetzen.

Pagadiko sendia

ALBIZTUR, 2007ko otsailaren 9a



- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ ZINEMA

‘Miss Sunshine txikia’ filma zineman gaur eta etzi, ohiko orduan

2006ko Donostiako Ikusleen Saria irabazi zuen filmaren emanaldia 22:30ean izanen da, eta igandean, 19:30ean



Olive, Miss Sunshine txikia (Little Miss Sunshine) filman. HITZA

NAIARA GARZIA

Jonathan Dayton eta Valerie Faris-ek zuzendutako filma botako dute gaur eta etzi herriko

zineman, ohiko orduan. 101 minutuko iraupena duen film honek joan den urtean estreinatuzenez Donostiako Ikusleen Saria irabazi zuen.

Steve Carell, Toni Collette eta Greg Kinnear-ek egiten dutelana, besteak beste, komedia eta drama nahasten dituen film honetan.

Miss Sunshine txikia filmak erabat desegituratuta egon arren oso erakargarria den familia baten istorioa kontatzen du, Hoover sendiarena, alegia. Familia honetako kideetako inork ez du bere bizitza antolatzetik lortu, behin eta berriro horretan buru-belarri saiatu diren arren. Aitak, arrakastari buruzko ikastaroak ematen ditu eta hauek harrera onik lortu ez arren, ez du etsirik hartzen. Ama, berriz, duintasunaren alde borroka egiten duen arren, bere familiaren bitxikeriek ito egiten dute, bereziki bere anaiaren jarrerak, ospitalelik atera berria baita bere buruzak beste egiten saiatu ondoren. Aitona bera ere zahar-ete batetik bota berri dute heroina kontsumitzeagatik. Familia honen kide gazteek ere ametsik badute. Olivek, adibidez, etxeko txikiak, betaurrekodu-na eta pottolita xamarra izan arren, emakume eder bat izan nahi du.

Zortearen gora-beherak di-rela medio, Olivek Miss Sunshine txikia izeneko lehiaketan parte hartzen du. Hoover familiak Olive laguntzea erabakitzen du eta berarekin joanen dira Californiara. Volkswagen furgoneta zaharreen hiru egunetako bidai tragikomikoa burutuko dute, Estatu Batuetako paraje horietan barrena.

LEITZA ▶

Bengoetxea eta Ruizen pilota hautaketa

Biharko partidaren garrantzia dela eta, 150 ikusle hurbildu ziren Labritera

N. GARZIA

Herenegun eta bihar jokatu-ko dituzten bi partidetarako pilota hautaketak egin zituzten. Labriten, Bengoetxea VI.a, Ruiz, Martinez de Irujo eta Goñi bildu ziren. Eta lau pilotariak ezezik, 150 bat ikusle ere bertara hurbildu ziren.

Bengoetxea VI.ak eta Ruizek Irujok eta Goñik baino pilota biziagoak aukeratu zituzten, 103,8, 105,5 eta 104,7 gramokoak. Aurkariek, berriz, pilota astunagoen aldeko apustua egin zuten, 104,6, 105,7 eta 104,7 gramokoak aukeratu.

Bihar Labriten jokatu-ko den norgehiagoka erabakiorra izango da bi bikoteentzat, baina kasu honetan presioa Irujok eta Goñik daukate, hauek galduz gero Bengoetxea VI.a eta Ruiz zuzenean otsailaren 25ean izango den finalurrera pasako baitira. Aldiz, Irujok eta Goñik irabazten badute, hirugarren norgehiagoka bat jokatu beharko dute otsailaren 18an berdinketa hausteko. Baina pilotari leitzarrak azaldu zuten bezala, «hirugarren aukera momentuz alde batera utzi behar dugu, eta lehenbailehen irabazten saiatuko gara».

TOLOSA ▶ KIROLAK

Alpino Uzturreko kideek emaitza onak lortu dituzte Candanchun

Tolosarrek lehenengo eta bigarren postuak eskuratu zituzten Euskadiko Txapelketan

NAIARA GARZIA

Joan den asteburuan Candanchun izan zen iraupen eskiko Euskadiko Txapelketan Alpino Uzturreko korrikalariak emaitza oso onak lortu zituzten, lau korrikalari lehenengo gelditu baitziren, eta beste bi, bigarren. Ioseba eta Imanol Rojok, lehenengoak junior mailan eta bigarrenak kadete mailan, garaipena lortu zuten. Gaur egun bai bata, bai bestea Euskadiko Txapelketan dira eta Espainiako selekzioan daude.

Bestetik, Xabier Saizar izan zen irabazle aguilucho mailan eta Lourdes Irazustak beterraren artean. Erlantz Gonzalez bigarren izan zen kadete mailan, Eneritz Gonzalez bezala.


Aurtengo elur eskasia dela-eta hau da lehen proba eta Mundu eta Europakoak puntuagarriak diren zenbait proba bertan behera geratu ziren.



Rojaño aiak Candanchun joan den asteburuan. HITZA



FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)				
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA				
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA	
Galdaragintza eta egituren planoak interpretatzea	60	2007-02-26	Astehenerdik ostegunera 18:00 - 21:00	
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	40	2007-03-05		
Muntai domotiko zentralizatuak (ERAIKIN INTELIGENTEAK)	40	2007-03-05		
Automatismo elektroteknikoak (KUADRO ELEKTRIKOAK)	40	2007-03-05		
Aire girotuko instalazioak muntatzea	40	2007-03-05		
Dokumentuen kudeaketa (Photoshop)	55	2007-03-19		
Dokumentu informatikoen kudea (Word-excel-korreo-internet)	75	2007-03-19		
BESTE IKASTAROAK WEB ORRIAN				
Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA				
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com				



Salgai (Tolosa) lurrarendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. 5 logela. Lorategia. Garaje itxia.

Salgai (Añoeta) 78m²-ko pisua sartzeko prest. Terraza ederra eta eguzkitsua. Altzairuz hornitua.

Salgai (Tolosa) 50m². Aitiko ederra estreinatzeko guztiz eraberritu ostean. Aukera aparta! 191.122 euro.

Salgai (Tolosa) 1. go pisua alde zaharreen. 70m². Estreinatzeko guztiz eraberritu ostean.

Salgai Lokal komertzial egokitua. 50m². Kale nagusian. Erakuslehoarekin.

Salgai (Albizur) Baserri eguzkitsua. Ingurune pribilegiatua. Sarbidea ona. Landa-turismorako egokia

943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko otsailaren 9a, ostirala ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Elizbarrutiko bokazio-pastoraltzak *Kristau-apaizgoa* izeneko hitzaldia antolatu du 16:00etan Santa Mariako Parrokia etxeko areto nagusian.

Tolosa. Musikene Big Band kontzertua entzungai izango da, Leidor aretoan, 20:00etatik aurrera.

Tolosa. Heleta-Baigorri (Behe Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak etzirako. Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke, Gudari kaleko 6. zenbakian edo 943 65 27 89 telefono zenbakian.

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.

Tolosa. Bihar, inauterien egitarauaren baitan, Aizorrazteko haur jaialdia izango da, 17:00etatik aurrera, Leidor aretoan.

Tolosa. Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, ebeko laguntza, geriatria, inmigratio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktiko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.

Anoeta. Alkartasuna jubilatuen bitokiko taberna-jatebaxaren ardura hartu nahi duenak, udaltxean eska dezake informazioa.

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebeko gizarte zerbitzuetan izango da eta HHIko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Villabona. Etzi Gorbeia joango da Aizkardi mendi elkartea. Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke edo 943 694458 telefono zenbakira deituz eta Joxanengatik galdetuz.

Zuzurkil. Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezake. Bertara errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiri literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin joan beharko dute interesatuek.



Zaldunita bezperako danborradaren azken ukituak

TOLOSA ▶ Bihar zortzi Zaldunita besperako danborradaren burrunbak gogor astinduko du Tolosa. Horretarako, ordea, lan handia dago atzetik. Trajearen eta instrumentuen prestaketak batetik eta doinuaren entseguak bestetik. Azken hiru egumetan gogor aritu dira entseguetan danborradako partaideek. Azken entsegua, ber-
 rriz, hilaren 13an egingo dute, asteartearekin, 20:00etan izango da Musika Eskolan, Musika Bandarekin eta guzti. Azken prestaketak, beraz, urtetik urtera giro ederragoa jartzeko herrian. Iazkoa arrakastatsua izan zen erabat, perkusioaren doinuak uztartu baitzituzten. Aurtengorako ere gutxi itxaron beharko dugu... N. LATABURU

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian, jaiegutetan eta astelehenetan izan ezik.

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.

Alegia. Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai. Asteburu honetan izango da koadroak ikusteko azken aukera.

ZINEMA

Tolosa. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean *Maria Antonieta* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan, 4,5 euroren truke. Etzi, berriz, film

berbera 19:30ean eta 20:30etik aurrera izango da eta 17:00etan haurrei zuzendutako emanaldian, *Gure sagutxo hori* izeneko filma izango da ikusgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Ebebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepeaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Asteko onena.*
21:00-22:00. *Igo bolumena.*
 ▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Manex Bengoetxea Jaular. Gaur urtebete. Muxu handi bat ebekoen partetik.

URTE ASKOAN
Asier Etxeberria Irastorza (Tolosa). Gaur 5 urte. Muxu handi bat sendiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udalteko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...